



INTERCULTURAL COMPETENCES (1. aldia)

(INGELESEZ)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2017/2018

ARLOA: Humanidadeak

KREDITUAK: 3 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 39,90 euro

ARDURADUN AKADEMIKOA: Ainhoa Gómez Pintado

AURKEZPENA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko unibertsitatea prestakuntza nazioartera zabaltzearen aldeko da, hartara ikasleek hizkuntza, kultura eta prestakuntzaren arloko gaitasunak lor ditzaten etorkizunari aurre egiteko eta arrakastarako aukera zabalagoa izan dezaten gizarte globalizatuko erronkei begira.

Marko honen barruan, beste herri batzuetarako higikortasun programak sustatzen dira. Uste dugu ikasleei inpaktu onuragarri bat ekarri ohi diela, banakoaren zerikusirik gabeko testuinguru sozial ezezagun batean egoteak. Horregatik, egonaldi-mota honen egin baino lehen, kulturarteko konpetentzia komunikatiboek lan egitea beharrezkoa da.

ZURE BILA GABILTZA

Mugikortasun egonaldi bat egingo duzu eta zure gaitasunak hobetu nahi dituzu atzerrian hobeto ibiltzeko?

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak prestakuntzaren nazioartekotzea bultzatzen du, ikasleetan hainbat gaitasun (hizkuntza, kultur eta prestakuntza gaitasunak) garatzeko helburu orokorra izanik, geroan gizarte globalaren erronkei ekitea ahalbidetzeko ahalik eta arrakasta bermerik handienaz.



Gaude gurea ez den testuinguru batean kokatzeak sekulako eragina dakarrela. Hori dela eta, mugikortasun egonaldiaren aurretik, beharrezkoa da kulturarteko gaitasunak eta komunikaziokoak lantzea zure esperientzia pertsonalak zein akademikoak optimizatzeko atzerrian egingo duzun egonaldian.

Baldin eta **ingelesezko B2** baduzu, **nazioarteko mugikortasun bat egiteko onartua** bazaude edo **egina baduzu** baina munduan gaitutako profesional gisa hobeto jokatzeko ahalbidetuko dizuten kulturarteko gaitasunetan sakondu nahi baduzu, ... hau da behar duzun ikastaroa!

Ikastaroa hiru campusetan emango da ekainaren 11tik 16ra bitartean. Bost orduko ikastaro trinkoa izango da (asteleheneetik larunbatera. 09:00etatik 14:00etara) Informazio gehiago nahi izanez gero, gure webgunea kontsulta dezakezu: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/home>

Gainera, ikastaro hau eginez gero, gehienez ECTS kreditu bateko aitortpena lor liteke UPV/EHUren graduetako ikasketetan.

Apunta zaitez!

IRTEERA PROFESIONALAK

Alde batera utzita gure ikasleek aukeratutako prestakuntza arloa eta zer lan sektoretara jo nahi duen, kulturarteko gaitasunak eta komunikaziokoak garatzea plus bat da, ibilbide profesionalean aurrera egiteko bultzada bat eta faktore bat gure ingurune enpresetan egiten diren hautaketa prozesuetan gailentzeko.

Kulturarteko prestakuntza batek hizkuntzei lotutako trebetasunak ez ezik, egokitzapenerako gaitasuna ere islatzen du, beste mentalitate batzuk ulertzeko eta aniztasun ingurune batean lan egiteko. Eta, jakina, gaitasun horiek gero eta baloratuagoak dira ingurune globalean diharduten enpresetan.

BALDINTZAK

Alumnado de Grado o Máster que va a realizar (ya ha sido admitido/a) o que haya realizado una movilidad.



IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2018/06/11-tik 2018/06/16-ra

EMATEKO TOKIA:

- Bilbo –Economía eta Enpresa Facultatea(Sarriko)
- Donostia –Carlos Santamaria Zentrua
- Gasteiz – Las Nieves Aulategia

Ordutegia: ASTELEHENETIK LARUNBATERA. 9.00-14.00.(Araban izan ezik 26an: 08:30 -13:30)

HIZKUNTZA: ingelesa

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Arabako Campuseko Errektoreordetza,
Nazioarteko Bulegoa (Beheko solairua)

HELBIDEA: Izaola Comandantea, 2 . 01006 Vitoria Gasteiz

TELEFONOA: +34 945 01 33 56

FAXA: +34 945 01 33 54

POSTA ELEKTRONIKOA: plan.linguistica.internacional@ehu.eus

WEB ORRIA: <http://www.relaciones-internacionales.ehu.eus>

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.